



EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN BAITA BERRITZEGUNEARI ATXIKITAKO LANGILEEI 2025-2026 IKASTURTERAKO IKASTETXEAK TELEMATIKOKI ESLEITZEKO EKAINAREN 18KO BEHIN BETIKO EBAZPENA.

RESOLUCIÓN, DEL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL, POR LA QUE SE CORRIGE LA RESOLUCIÓN DEFINITIVA DEL 18 DE JUNIO DE LA ASIGNACIÓN TELEMÁTICA DE CENTROS DEL PERSONAL ADSCRITO A BERRITZEGUNE PARA EL CURSO 2025-2026.

AURREKARIAK

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko ekainaren 18ko Ebazpenaren bidez, behin betiko ebatzi zen 2025-2026 ikasturterako Berritzeguneari atxikitako langileen ikastetxeen esleipen telematikoa, eta hurrengo ikasturterako pertsonen eta esleitutako lanpostuen zerrenda argitaratu zen.

Ofiziozko akatsak ikusita, beste epe bat ireki zen zerrenda horri erreklamazioak egiteko, ekainaren 23tik 25era.

ANTECEDENTES DE HECHO

Mediante la resolución de 18 de junio de 2025, del Director de Gestión de Personal se resolvió con carácter definitivo la asignación telemática de centros del personal adscrito a Berritzegune para el curso 2025-2026 y se publicó el listado de personas y los puestos asignados para el próximo curso.

Observados errores de oficio se abrió un nuevo plazo de reclamaciones a dicho listado desde el 23 al 25 de junio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezartzen duenez, «administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Hori dela eta, HAU EBAZTEN DUT:

Bakarra.- Prozesu telematikoko esleipenen behin betiko zerrenda berri argitaratzea.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.- El art. 109.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, establece que «las administraciones públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos».

En su virtud, RESUELVO:

Único.- Publicar de nuevo el listado definitivo de asignaciones del proceso telemático.

ERREKURTSOA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen

RECURSO

Contra la presente Resolución que no



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y
Servicios
Dirección de Gestión de Personal

administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz.

pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 121 y ss. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteizen, sinadura data-orduan

Unai Nieto Marijuan

DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL